

Bigarrena eta Donibane Aturriko kaian, zeharkaldia hasi baino lehen.

1939ko erbestea

Askatasunaren bila barkuz eta pateraz

Gerra Zibilak milaka lagun eraman zuen Pirinioak gurutzatzera. Itzuleraren esperantza altzoan zeramaten, baina mugaz bestaldean ezusteko itzela jaso zuten: kontzentrazio zelaiak eta Bigarren Mundu Gerra aurreko giro ozpindua. Askok Ameriketara ikusi zuten salbazioa, baina gaitza izan zen hara iristea. Euskaldun batzuek arbasoen marinel senari jarraitu zioten, eta patera itxurako bi ontzixotan bidaia miragarria egin zuten ozeanoan barrena.

JOSU CHUECA

EUSKALDUNEK ASPALDI izan dute Ameriketara joateko joera. Argentina, Uruguai, Mexiko, AEBetako sartaldea... Horiek izan dira, besteak beste, XIX. eta XX. mende-

tan euskal migratzaileen jomuga. Indianoen ametsak errepikatu nahian, lan eta bizitza berriaren bila abiatu ziren milaka lagun itsasoz bestaldera. Ohiko emigrazio "ekonomi-



Goiko irudian: Veracruzeko portuan (Mexiko), *Sinaia* itsasontziari egindako harrera populutsua, 1939ko ekainaren 14an. Espedizio hori izan zen erbesteratuak Mexikora eramateko antolatutako en artean lehenena. Beheko irudian: *Sinaia* baporea.



ko” horri baina, beste mota bateko emigrazioa gehitu zitzaion: 1936-1939ko gerra zibilak eragindako erbesteratze politikoa. Kopuru aldetik txikiagoa zen, baina, emigrante horien prestakuntza eta ezaugarri politikoak medio, eragin handia izan zuen Amerikan oso errotuta zegoen euskal komunitatean.

Dena den, ezustezko handia izan zen Espainiako Estatutik alde egin zutenentzat, itsaso bestaldera jo behar izatea. Espainian gerra galduta zuten arren, Europako zurrunbiloan sarturik, Francoren erregimena laster eroriko zela pentsatzen zuten askok. Komunistek, esate baterako, Negrin presidentearekin bat egin eta *Eustea irabaztea* da leloari heldu zioten, lehertzeaz zegoen Munduko Gerrak erregimen faxista guztiak deseginen zituelakoan. Beste askok ordea, etorkizun politikoa erabateko ezkortasunez begiratzen zuten. Bazuten argudio-

rik ezkortasun horretarako: Alemania eta Italia, gero eta lotsagabeago zebiltzan eta ez zituzten beraien asmoak ezkututzen. Dagoeneko Austria irentsita zuen Alemaniak, Britainia Handiarekin eta Frantziarekin sinaturiko 1938ko hitzarmenak tartean zirela; germaniarrek gero eta nabarmenago erakusten zuten berrindartze politiko-militarra. Espainiako Estatu frankistari zegokionez, 1939ko otsailerako –Gerra Zibila amaitu baino bi hilabete lehenago– frantziarrek eta britainiarrek jada onetsita zuten Errepublikari bizkarra ematea.

Garai berdintsuan, gerratik alde eginez Frantziara edo Ipar Afrikara iritsitako errefuxiatuei honako aukera eskaintzen hasi zitzaion bertaratu bezain pronto: Negrinekin jarraitu ala Francorekin joatea. Berehala jakin zuten zertan zetzan aukeraketa hori: diktadura frankistaren kartzelak eta errepresioa sufritu edo Frantziako kontzentrazio zelaietan nolabaiteko aterpea izatea. Bidegurutze horretan, asko izan ziren Hendaiaatik edo Port Boutik atzera egin zutenak berriz ere Espainiara itzultzeko; baina gehiengoak nahiago izan zuen Errepublikaren laguntzat jotzen zuten Frantziara gelditu. Horiek, armarik gabe, gatibuen antzera, arrapaladan irekitako Saint Cyprien, Le Barcarés, Argelés, Le Vernet, Age, Gurs, Sept Fonds bezalako esparruetan gelditu ziren, jendarmez eta txarrantzez inguraturik. Buruzagi politiko gehienek kontzentrazio zelaiak saihestu bazituzten ere, errefuxiatu gehienak hor igaro behar izan zituzten 1939ko lehen hilabeteak.

Mexiko eskuzabala: lehen espedizioak

Testuinguru horretan, Ameriketara joateko aukerak gero eta oihartzun handiagoa hartu zuen Frantzia zeuden errefuxiatuen artean. Baina helmuga berri horretara iristea ez zen batere erraza. Alde batetik, errefuxiatuen kopurua oso handia zelako –Espainiara berriro jo zutenak kenduta, 200.000 lagunetik gora zeuden Frantzia momentu horretan–; gainera, horietako askok ez zuten inongo baliabiderik bidaiatxartelak erosteko, eta espedizioak gutxi izan zirenez haiek garesti zeuden. Bestetik, Frantziatik ateratzeko ezinbestekoa zen itsasoz bestaldeko herrietako baimena edo bisatua. Auzi horretan, bakarrik Mexikok jokatu zuen eskuzabaltasunez, eta jende guztiari herrialde hartan sartzeko aukera eman zion, inolako salbuespenik gabe. Erbesteratuei sarrera orokorra eskaintzeaz gain, Lazaro Cardenas-en gobernu mexikarraren ordezkariak Frantziako kontzentrazio zelaian eta errefuxiatuak aterpetuta zeuden hiri nagusietan ibili ziren, jendeari beharrezkoak zituzten izapideak errazten, orduan prestatzen ari ziren espedizioak gorpuzteko helburuz.

Amerikako gainontzeko lurraldeek –Errepublika Dominikarra, Txile, Uruguai, Venezuela eta Argentina–, beraien immigrazio-kolonizazio politikaren arabera jokatu zuten. Batzuetan etorreraren aukera zabaldu zuten, baina bestetan sarbidea itxi zieten Europatik etor zitezkeenei, bereziki Espainiatik alde egindako “gorriei”. Jarrera horrek baldintzatu zuen, neurri handi batean, erbesteratuen jarioa eta bere kokapena. Mexiko izan zen espedizio aitzindarien eta handienen helmuga, eta ondorioz, espedizioak amaitu zirenean ere, berau izan

Mexikok eskuzabaltasunez jokatu zuen bitartean, beste herrialdeek batzuetan ateak zabaldu eta bestetan sarbidea itxi zuten, bereziki Espainiatik alde egindako “gorriei”

zen etorkin berrien aterperik abegikorrena: 25.000tik gora iheslari iritsi ziren Cardenasen agindupean zegoen estatua. Argentinara 10.000 heldu ziren, eta beste 5.000 Venezuelara.

Espedizioak 1939ko udaberrian hasi ziren, Sètetik eta Bordeletik abiatuta, milaka lagun Veracruzera iraman zituztenean *Sinaia*, *Ipanema* eta *Mexique* itsasontzi mitikoetan. Lehen bidaiak *Sinaia* zamaontziak egin zuen, urte horretako maiatzaren 26a eta ekainaren 14a bitartean. Veracruzera iritsitakoan, milaka lagun zeuden zain, Europatik joandako erbesteratuei harrera beroa eskaintzeko. *Sinaia* Veracruzera iritsi zen egun berean, Bordeletik bigarren ontzia itsasoratu zen, Mexikoko portu horretara iriste-

ko asmoz. Lehenengo bi espedizio hauek SERE antolatutako zituen (Errefuxiatu Espainiarrak Ateratzeko Zerbitzua) eta bidaiariak hexagono frantziarrenean zeuden kontzentrazio zelaietatik ateratako errefuxiatuak ziren gehienbat.

SERE erakundeak antolatutako espedizio erraldoi horietatik aparte, beste hainbat barkuk ere iraman zituzten espainiar eta euskaldun anitz Venezuelara, Errepublika Dominikarrera eta Argentinara. *Bretagne Flandre* eta *Cuba* barkuetan, esate baterako, 200dik gora euskaldun La Guaira-ra iritsi ziren, Venezuelako agintariek Eusko Jaurlaritzarekin hitzartutako baimenari esker.

Ontzi txuri polit bat...**Euskaldun batzuen epepeia**


Hain zuzen, Venezuelara iritsi zen espedizioen artean txikiena baina bitxiena izanzen zena, kasik gaur egungo pateren bidaiari antzekoa egin baitzuen ozeanoan barrena: 1939ko irailaren 6an, hamazazpi errefuxia-



Atxaspi Hotela

Bittiria 24
Lesaka (Nafarroa)
T 948 637 536

hotela@atxaspi.com
www.atxaspi.com



Ezkerreko irudian: Jose Maria Burgaña mutrikuarra, *Bigarrenako* kapitaina, eta beste lagun batzuk, itsasontziaren gainean. Eskuineko irudian: eskifaia ontzi gainean.

tu Venezuelara arribatu ziren bi ontzixotan, Jose Manuel Odrizolak Baionan mar txan jarritako ontzian eginak. *Donibane* eta *Bigarrena* deitutako itsasontzi horiek Aturriko ontzian eraiki zituzten. Biek egurrezko kroskoa zuten, eta 14 metro luze eta 2,5 metro zabalekoak ziren. Itsas bazterreko arrantzan aritzeko eginak ziren eta ez ozeanoz haraindiko bidaiak burutzeko. Hala eta guztiz ere, Frantziatik alde egin nahian, Baionatik Venezuelarainoko zeharkaldia egiteko prestatu zituzten nola edo hala. Zortzi lagun joanen ziren bakoitzean eta gelditzen zen leku apurrean –bai kubiertan eta baita sotoan ere– urez, erregaiz eta janariz betetako kupelak sartu zituzten ongi lotuta. Errefuxiatu horien asmoa zabaldu zenean, inguruko jendeak eta ontziolaren arduradunek beraiek ere, aho batez esan zuten ontziak ez zirela gai izango horrelako zeharkaldia egiteko –seguru-etxeak ere bertan behera laga zuen asegurantza poliza–. Baina Frantziako agintarien aldetik barkuak esportatzeko baimena eskuratu bezain laster, zalantzak alde batera utzi eta aurrera egitea erabaki zuten. 1939ko abuztuaren 6a zen, arratsaldeko 6ak, eta Baionako Allées Marines kaitik bi ontzixoak urruntzen ikusi zituzten, Frantziako bandera mastan zutela. Aturriko barra gainditu orduko, euskal ikurrina eta Venezuelako bandera jarri zituzten, bata brankan eta bestea atzeko aldean, beraien koordinada geopolitikoak agerian utziz.

Bigarrena ontzian, Jose Maria Burgaña mutrikuarra zuten kapitain eta *Donibanen*, Pedro Ruiz de Loizaga zihon arduraren beraekin. Ontzi bakoitzean zazpi errefuxiatu osatzen zuten eskifaia. Edo hala uste zuten. Izan ere, lehendabiziko gauean sorpresa

galanta izan zuten *Bigarrenako* tripulantzai-leetik: sototik ezkutuko bidaiari bat azaldu zen, Miguel Maria Barredo. Itsasertetik urrun zeuden eta lehorreratzetik ez zenez, beraiekin joanen zen helmugaraino.

Hiru egun behar izan zituzten Kantauri itsasoa atzean lagatzeko, arrantzaleen ohiko guneak eta merkatal ontziak saihestuz, Europatik urruntzen joan ziren. Bi asteren buruan behin-behineko lehorreratzeara egin zuten Dakarren. Burgaña kapitainak zehaztasun osoz izkiriatu zuen legez: 3.242 mila eginak zituzten ordurako, 13 egun eta 10 ordutan, orduko 6,97 miliako abiadurarekin, hain zuzen.

Hortik aurrera, Atlantikoa bere handitasunean. Erronka horri aurre egiteko bi egun igaro zituzten lehorrean, beharrezkoak ongi hornitzeko. Ordura arteko arrantza ugalduz joan zen eta barkuek, nahiz eta matxura pare bat eduki, eutsi egin zioten beren eginbeharri. Amerikatik Europatik baino gertuago zeudenean, irratien bitartez jakin zuten irailaren lehenean Alemaniako armada Polonian sartzen ari zela, eta horrekin, iragarrita zegoen Mundu Gerra hasi zela.

Handik gutxira, Tobagoko itsasertetik igaro ostean, Amerikako lurretan lehorreratu ziren, Rio Caribeko badian. Venezuelan zeuden, eta Cumanatik barrena, bi egun beranduago euskaldunendako portu ezaguna izan den La Guairara iritsi ziren Burgaña-ren marinela. Euskaldunek denboran atzera egin zutela zirudien, Caracaseko Errege Konpainiaren XVIII. mendeko belaontzien garaietara. Baina ez zetozen merkataritza lanetan, bizitza berri baten bila baizik. Eta horretarako ez zen nahikoa venezuelarren oniritzia izatea, lanean aritu beharko ziren ahal zen lantokitan. Ez zen

erraza suertatu. Izan ere, Burgañak eta bere lagunak arrantzatik bizitzeko hainbat ekimen martxan jarri zituzten, baina porrot egin zuten, eta Caracaserara jo behar izan zuten bestelako lanei ekiteko.

Egoera zailduz: *Alsina*ren zoritxarra

Beste espedizio batzuk ere abiatu ziren Frantziatik Ameriketara. Esaterako, euskaldunen bi txalupak itsasoan barrena zebiltzan egunetan, *Winnipeg* barkuak Txileraino eramane zituen 2.000 errefuxiatu, Pablo Neruda poeta ezaguna –eta orduko diplomatiko txiletarra– oztopo guztien gainetik hori lortzeko tematu zelako. Baina Bigarren Mundu Gerrarengatik premia gero eta handiagoa zegoenez, bidaiak zaildu egin ziren. Frantzian bai Vichyko agintariak, bai Gestapokoak, eta baita polizia frankista ere, saiatu ziren ekimen horiek oztopatzen. Marseilla “eskualde libreko” –hala deitzen zioten Vichyko gobernu kolaboratzailepean zegoen zonaldeari– porturik garrantzitsuena eta atera leku bakarra bilakatu zenean, polizia eginahalak bideratu ziren handik ateratzen ziren espedizioak abortatzera eta politikari ezagunen aurkako atxilotetak burutzera. Ezaguna izan zen euskaldunen artean Rafael Picabea diputatu ohiari gertatutakoa: *Alsina* barkura igotzen ari zenean, Argentinara joateko, jaitsi arazi eta atxilotu egin zuten.

Alsina barkuak ederki islatu zuen zer zailtasun zeuden 1940ko bukaeran askatasunerako bidaiari egiteko. Izan ere, 60 egun Marseillako kaietatik atera ezinik egon ostean, Dakarrera iritsitakoan, britainiarrek berriro geldiarazi zuten, bandera frantziarra zuenez *Navigation Act* delakoa baimentzen ez ziotelako. Hori dela eta atzera jo

behar izan zuen, Casablanca aldera, eta inguruko kontzentrazio zelaian sarturik igaro behar izan zituzten hainbat hilabete bere bidaiariak; aharik eta beste barku batean –*Quança* izenekoan– zeharkaldia bururatu ahal izan zuten arte. Horren ondorioz, 20 egun inguruko bidaiari behar zuena, 441 egunetan egin zuten azken bidaiariak Buenos Airesera zirenean.

Beraien artean zeuden Niceto Alcalá Zamora, Telesforo Monzon, Francisco eta Nestor Basterretxea, Bicente Amezaga, Constantino Salinas... Hau da, ia-ia korronte politiko guztietako ordezkariak. Batzuk eskualde horretan betirako gelditu ziren, eta beste batzuk Amerikan barrena barreiatu ziren.

Gehienek, hala ere, itsasoan harago zihoazen ekimen kultural eta politikoei heldu zieten gogo handiz. Hori dela eta loratu ziren Amerikako eskualde gehienetan *Tierra Vasca*, *Alkartu*, *Eusko Gogo* eta antzerako aldizkariak, Ekin eta Seneca bezalako argitaletxeak, bai eta


hainbat ekimen diplomatiko eta politiko ere.

Oraindik pentsatzen zuten posible zela 1939ko galerari buelta ematea, eta jakina denez, Bigarren Mundu Gerra amaitu zenean, itxaropen hori nabarmen indartu zen. Baina Gerra Hotzak laster hoztu zituen aldaketarako beharrezkoak ziren nazioarteko laguntzak eta ekimenak. Ameriketara joandakoak Europara buelta zitezkeen noski, baina ez Espainia frankistara, 1939an gertatu zen legez, 1950az geroztik, AEBek, Frantziak eta Britainia Handiak Francoren diktadura lehenetsi baitzuten berriz ere, errefuxiatu horiek guztiak ordezkatzen zituen eta indarrez hondoratua izan zen demokraziaren aurretik. ■

**1939ko abuztuaren 6an,
arratsaldeko seietan, Baionako
Allées Marines kaitik bi ontzitxoak
urruntzen ikusi zituzten
Frantziako bandera mastan zutela**



**TALLERES
MITXELENA S.COOP.**



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S. Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com